

FUNTSEZKO BALIABIDEAK



Planbide finantzatzeko modu hauek ditugu: kapitala, dirulaguntzak, crowdfunding, inbertsoreak eta banku-maileguak. Haietatik batzuk besteak baino lehentasun gehiago dute, horregatik bakoitza ordenean jarri ditugu haien lehentasunaren arabera.

1. KAPITALA

Gure lehenengo aukera Planbide finantzatzeko bakoitzaren ekarpena da, hau da, bakoitzaren kapitala, eta kapital hori, esate baterako, gure aurrezkiak izango dira.

2. DIRULAGUNTZAK

Gure aplikazioa finantzatzeko diru-laguntzak metodo oso ona izan daiteke.

Hemen, Euskal Herrian ekintzaile izan nahi duenarenentzat, diru-laguntzak ematen dira. Horrez gain, gazte ekintzailea izateagatik ere ematen dira laguntzak. Horrela, gazteak ekintzaile izateko erraztasunak izango dituzte. Diru-laguntza horiek emateko edo gero ez bueltatzeko baldintza asko bete behar dira. Hala nola, diru horrekin erositako gauzen faktura erakustea. Diru hori, esan zenuen gauzetan erabili duzula adierazteko. Hori da baldintzenetariko bat, baina gehiago daude. Dirulaguntzak eskatzea gure bigarren aukera da; izan ere, erabilera ona ematen badiogu, doain aterako zaizkigu hainbat gauza. Modu horretan, gure enpresa aurrera eramatea errazagoa izango da.

3. CROWDFUNDING

Gure enpresak kapitalatik eta diru languntzak bitartez jasotako diruatik gehiago behar izanez gero, kanpaina bat egitea erabakiko dugu, geroago webgune batean dirua biltzen hasteko. Kanpain horretan lau bazkideak leku zehatz batean bilduko gara, eta bertan jendeari gure enpresari buruz hitz egingo dugu. Adibidez: zertan datza gure aplikazioak, gure enpresaren helburuak, kanpainan jasotako dirua zertarako erabiliko da, nora iritsi nahi dugu... Era berean, foiletoak ere eskura jarriko ditugu bertan gure datu pertsonalak utziz nahi duenak kontuan izateko.

Kanpaina egiterakoan, webgunea martxan izango dugu momentuan dirua emateko prest dagoenari azaltzeko eta laguntzeko. Kanpain egin ondoren, hilabete bateko epea jarriko dugu webgunean dirua emateko.

4. INBERTSOREAK

Gure laugarren aukera dirua lortzeko inbertsoreak bilatzea da. Inbertsore bat edukitzeak gure enpresan alde onak eta txarrak izango ditu. Alde ona, dirua lortzeko laguntza daukagu. Alde txarra, enpresaren irabazietatik diru kantitate bat inbertsorearentzat izango da. Horregatik, aukera hau azkenetako bat utzi dugu.

FUNTSEZKO BALIABIDEAK



5. BANKU-MAILEGUAK

Gure enpresaren azken baliabidea dirua lortzeko banku-maileguak izango dira. Banku-maileguak 3 elementuz osatuta daude: kapitala; bankuari eskatutako diru kopurua da, interesak; bezeroak maileguan hartutako kapitala izateko ordaintzen dion plus extra bat da eta epea; diru nagusia gehi interesak itzultzeko kontratuan ezarritako denbora.

Horretarako, gure enpresak diru kantitate zehatz bat eskatuko dio bankuari eta bankuak jarritako epean (motza edo luzea izan daiteke) itzuli egin behar diegu. Diru hori, ezarritako interesekin batera, itzuli egin behar da.

ONDORIOA

Azkenik, planbide finantzatzeko modu desberdinak ikusi eta aztertu geroz, gure enpresarako aukera hoberena diru-laguntzak dira. Gure kasuan, aukera oso onak daude. SPRI taldeak, ekintzaile programa bat du. Hortan, proiektu berritzaileak dituzten gazte ekintzaileentzako laguntzak ematen dituzte. Programak bi eskaintza eskaintzen ditu:

- **Ideiaaren heldutasuna:** 30.000 €-raino itzuli beharrik gabeko jardueretarako, hala nola prestakuntza, aholkularitza teknikoa, bideragarritasun-azterlanak eta prototipoak sortzeko.
- **Abian jartzea:** Hasierako fasea baldintza onuragarriak dituzten maileguen bidez finantzatzeko diru-laguntzak, maileguaren % 20 eta lehen bi urteetako interesak barne. Gainera, laguntza ematen du BICen bidez (Business Innovation Centers).

Finantza-laguntza jaso arren, kapitala ere aukeratuko dugu. Gure gastuei aurre egiteko gure kapitalarekin aurre egingo diegu, gure aurrezkiak (bakoitzaren aurrezkiak) enpresan inbertitzea erabaki dugu.

Gure sarrerak eta kostuak kalkulatu ondoren, galerak ez izateko, 31.000€ inbertitu behar ditugu gutxi gorabehera; orduan, 30.000€ko dirulaguntza emango digute eta gero ere, gure enpresan 1700 € inbertituko dugu gure aurrezkietatik.